



## Plantxetako pulimentuko langilliak

**E**z eben horrenbeste iraun, baiña hiru hamarkada t'erdittan makinatxo bat gizakumek eta emakumek jardun euen lanian Iba-Errako zelaixaren ertzian, erreka onduan, Barrentzelaiñeko zerraren albuan egon zan **plantxa-fabrikan**.

Gerra aurretik Zumarragako **Buscatarrak zuma-lantegixa** jarri euen hantxe bertan, 1923an, horretarako jasotako pabelloi txiki batian, hau da, zesterixa bat; gerra denboran soldadu matxinuen lo-lekutarako aprobetxau zan 1936ko udazkenetik 1937ko erdira arte-edo. Gerria amaittu ez, baiña Oñattitik urrindu zanian, enpresa barri bat jarri zan instalaziño horretan: **DYNA** izenekua, **plantxa elektrikuak egitteko**; ordura arte, erropak plantxaitteko, ikatz gorittuez beteten ziranak edota sukalde ekonomikua- ren txapiaren gaiñian berotutako plantxak ebalten ziran.

DYNAk lantegi zaharraren aldamenian, Ubao erreka ertzian, pabelloi barrixa jaso eben 1943an, Damian Lizaur arkitekto oña- tiarraren planuen arabera. Hala ta guztiz be, etxaten negoziua oso ondo suertau, eta 1948 aldera sozio batzuk Bittorixara fan ziran, han kremallera-fabrikia zabalketara. Dana dala, Oñatiko enpresiak jarraitu eben plantxagintzan, baiña beste jabe batzuekin. Eiba- rren ziharduen **SOLAC** plantxa-fabrikan sozio izandako bik erosi euen hemengua, **SOLAUN y RUBIO, S. A.** firma barrixa sor- tuaz.

Esan dogunez, **emakume mordoskiak lana egitten eben enpresa honetan**: montajian edo ofizinan; bestelako sekziño danetan gizonetzkuak. Esate baterako, gaurko argazkixan datozenak **pulimentuko langilliak** dittugu: zeregin gogorra eta zikiña izaten zan, piezak makiñetan pulidutten hauts asko ataraten zalako, eta orduko segurtasun- eta higiene-neurrixak etziran gaurkuak lakuak.

Ezkerretik eskumara honeitxek dituzue obreruok: **Atzekaldian**: Joxe Artza, Kale Zaharrekoa; X. X.; Joxe Mari Biain, Kanpantxoko *Txorriña*; Bittor Kerejeta, Kale Zaharrekoa; eta Xanti Zelaia, Lekunbarrikua. **Aurrekaldian**: Esteban Letamendi, Kale Zaharre- ko *Sarrikona*; eta Kalisto Lucas, Donostiatik Kale Zaharrera etorritakua. Sail horretan urtietan jardundako beste bi langille eza- gun Grogorio Lizarralde *Kapo*, eta Julio Ros *Txatua*, eibartarra, izan ziran.

J. E.

Fotografixa Fernando eta Ixiar Artzak eskuratu doskue, Miren Maiztegiren laguntzaiaz. Argibidiak, berriz, aurrekuai eta Maixabel Elortzari zor dostegu. Eskerrik asko danoiri!